

BALOREZKO PROPOSAMENA

Gure helburua etengabe aldatzen diren pneumatikoak alde batera utziz, fidagarriagoak eta gehiago iraungo dutenak sortzea da. Hala ere, betiko gurpilak duten indarra eta heldulekuak mantentzen saiatuko gara, gainera, guztientzako ekonomikoagoak izatea saiatuko gara.



Bestalde, kotxeetan oinarritutako proiektu hau, beste hainbat garraioetarako egokitzen saiatuko gara, hala nola, bizikletak, motorrak, patineteak...
Modu honetara, ibilgailu guztietan segurtasuna bermatzea lortuko dugu.



Gure gurpilak airerik gabekoak izango dira, modu ekologikoan sorutako kautxo erabiliko dute, naturan eragin gutxiago izan dezaten. Hauek, kampokaldea (gainazalaren kontaktuan egongo den zatia) kautxo mota gogorra eta erresistenteagoa izango dute eta barnealdea malguagoa eta elastikoagoak izango da lurrarekiko eraginetara egokitzeko.

Gure produktuaren balioa kuantitatiboa zein kualitatiboa izango da, arrazoizko prezioa jartzen saiatuko gara. Hala ere, gure produktuen prezioen gorabeherak materialaren araberakoak izango dira.
Bestalde, kualitatiboa izango da gure gurpilen diseinuari garrantzia emango diogulako, noski bere funtzioa ondo betetzen duela ziurtatuz.

Gurpilak sortzeko kautxua, aluminioa eta altzairua erabiliko ditugu nagusiki. Material hauek inguruko hainbat enpresetatik lortuko ditugu, kutsadura ekiditen saiatzen diren enpresatan, ahalik eta Km 0-en izan daitezen.

Gainera, gobernuarekin sal-erosketa lanetan arituko gara gure inguruko zerbitzu publikoetako garraioetan erabilgarriak izan daitezen.



Azkenik, gurpilen sarrera errazteko fabrika fisikoa izateaz gain, internet bidezko eskaerak egitea posible izan dadin webgune bat izango dugu.